

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3068

EBAZPENA, 2013ko ekainaren 11koa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko ekainaren 26ko Aginduaren bidez deitutako laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzen duena Unibertsitate-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako laguntzak emateko 2013-2014 deialdia egiten du aginduak; (2012ko uztailaren 9ko EHAA, 133. zenbakia).

Deialdi-aginduaren 12.1 artikuluaaren arabera, ebaluazio-batzordeak proposamena aurkeztuko dio Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari, eta honek laguntzak esleitu edo ukatuko ditu ebazpen bakar eta arrazoitu baten bidez; interesdunei banan-banan jakinaraziko zaie ebazpena. Eta ondokoak argitaratuko dira EHAA-n –guztiek horren berri izan dezaten–: erakunde onuradunen zerrenda, jasotako urtezko zenbatekoa eta finantziazioa jaso duen programaren titulua.

2013ko maiatzaren 14an ebatzi zen deialdia, eta interesdunei banan-banan jakinarazi zaie ebazpena; beraz, argitaratu egin behar dira emandako laguntzak, jendeak horren berri izan dezan. Horregatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako proiektuak garatzeko emandako laguntzen onuradunen zerrenda eta esleitutako zenbatekoak –honekin batera doan eranskinean jasotakoak– argitaratzea, Unibertsitate-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako laguntzak emateko 2013-2014 deialdia egiten duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko ekainaren 26ko Aginduaren babesean (2012ko uztailaren 9ko EHAA, 133. zenbakia).

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 11.

Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea,
ITZIAR ALCORTA IDIAQUEZ.

2013ko uztailaren 5a, ostirala

ERANSKINA
EMANDAKO DIRU-LAGUNTZEN ZERRENDA

Kodea	Ikertzaile nagusia	Entitate onuraduna	Entitate laguntzailea	Enpresa	Proiektuaren izenburua	Urteak	2013. urtea €	2014. urtea €	Guztira €
UE2013-07	Gomez Rodriguez, Xabier	Mondragon GEP, S. Coop.		Orona, S. Coop.	Análisis de la influencia de la rugosidad de la garganta de la polea y de la configuración del cable en la degradación de cables recubiertos en sistemas cable/polea empleados en el sector de la elevación (RUCODEG).	2	17.800	32.476	50.276
UE2013-13	Galdos Errasti, Lander	Mondragon GEP, S. Coop.		Batz, S. Coop.	Desarrollo de procesos de estampación en caliente de aceros al boro de alto rendimiento para la producción de piezas de alta seguridad a impacto (BEROCONF).	2	31.485	12.169	43.654
UE2013-08	Arazola Arriola, Pedro Jose	Mondragon GEP, S. Coop.		Industria de Turbo Propulsores, S.A.	Determinación de condiciones de corte óptimas en el mecanizado criogénico de discos de turbina de Inconel 718 plus / CRINCOPLUS.	2	16.877	20.000	36.877
UE2013-09	Elejabarrieta Olabarri, Maria Jesus	Mondragon GEP, S. Coop.		Cikautxo, S. Coop.	MAGNETOBUSH; Nueva generación de Bushes inteligentes basados en elastómeros magnetorreológicos.	2	10.990	10.100	21.090
UE2013-06	Azpilgain Balerdi, Jon Zigor	Mondragon GEP, S. Coop.		Alfa Precision Casting S.A.	TITAFLIGHT: Proceso de fabricación de piezas de aleaciones de titanio de alto valor añadido mediante Induction Skull Melting para el sector aeronáutico.	2	19.400	18.300	37.700
UE2013-03	Sarrionandia Aiznabarreta, Maria Asuncion	Mondragon GEP, S. Coop.		Industrias Químicas Irurena, S.A.	Desarrollo de resinas fotocurables para procesos de Pultrusión (UV-RESIN).	1	15.999	0	15.999
UE2013-05	Aizpuru Nazabal, Aitziber	Mondragon GEP, S. Coop.	Ikerlan, S. Coop.	Orona, S. Coop.	Desarrollo de una herramienta numérica validada experimentalmente de simulación del comportamiento vibratorio y acústico del motor de una instalación de ascensor (HESIVAMO).	2	18.576	5.300	23.876
Deialdian guztira							131.127	98.345	229.472